



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

ENEKO ELOLA JAUREGI

zinegotziak

MIREN JOSUNE ZUBELDIA

ETXEBERRIA

OIER MINTEGI ZEBERIO

ENERITZ ITURBE URDALLETA

Lizartzan, 2017ko uztailaren 3an, arratsaldeko 19:30etan, eta Udaleko alkate udalburua, Eneko Elola Jauregi izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

216/2017 Dekretua

218/2017 Dekretua

240/2017 Dekretua

239/2017 Dekretua

241/2017 Dekretua

243/2017 Dekretua

217/2017 Dekretua

234/2017 Dekretua

238/2017 Dekretua

240/2017 Dekretua

242/2017 Dekretua

244/2017 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

3.- JMP PEÑAGARICANO MODELOS PARA FUNDICIÓN S.L. LURRAREN OKUPAZIOA. KONTRATUA SINATZEKO AHALMENAK ALDATZEA

2017ko maiatzaren 30ean ospatutako Bilkura Nagusian, Leire Gordo Castro, Alkateari, ahalmenak eman zitzaizkion, JMP PEÑAGARICANO MODELOS PARA FUNDICIÓN S.L., lurraren okupazioa, kontratua sinatzeko.

Kontratua sinatu behar denean, Leire Gordo Castro Alkatea oporretan dagoenez, bere ordezt dagoen, Eneko Elola Jauregi, Alkate-ordeari ahalmenak ematen zaizkio, kontratu hori sinatu ahal izateko.

4.- LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA

2017ko martxoan Lizartzako Udalak eta NORTINDAL SE APRODUCTS S.L.k hitzarmen urbanistiko bat sinatu zuten, bertan, Iruntzialdea Industrialdeko enpresen beharrei erantzuteko eta beren deslokalizazioa ekiditeko, Lizartzako AASSen aldaketa puntuala egiteko akordioa jasotzen zelarik.

Hitzarmen hori betetze aldera, 2017ko ekainaren 30an, Lizartzako udalean, A.7 Iruntzialdea guneari dagokion AASSen aldaketa puntualaren dokumentua aurkeztu dute, lehen onarpenerako. Berau, Ander Aguirrezabala arkitektoak eta Mikel Gorostiaga abokatuak sinatzen dute.

Dokumentuaren xedea, A.7 IRUNTZIALDEA guneko eraikigarritasuna handitzea da, horretarako goiko solairuen okupazioa, azaleraren %100 izan dadin proposatzen da.

2017ko uztailaren 3ko Idazkaritzaren txostena ikusirik, Udal Batzarrako, aho batez onartu du:

Lehengoa: NORTINDAL SEA PRODUCTS S.L.k aurkeztutako, Lizartzako AASSen, A.7 Iruntzialdea Eremuko Aldaketaren Dokumentuaren agiriari, lehen onarpena ematea.

Bigarren: Agiri hori jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta egunkari batean argitaratzen den azkeneko datatik kontatuko delarik, beharrezkoak diren alegazioak aurkez daitezten.

Hirugarren: Akordio hori Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta Berria egunkarietan argitaratu, eta Sektoreko eskumenak dituzten Herri-Administrazioei hasierako onarpenaren berri eman, ezagutu eta txostena egin dezaten



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

5.- HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALEEN ELKARGUNEA. HITZARMENA

LIZARTZAKO UDALAREN ETA, HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALEEN ELKARGUNEAN, BERTSO ESKOLAK, KULTUR EKITALDIA ETA TRANSMISIO LANAK BURUTZEKO HITZARMENA

Lizartzako Udalaren helburuetako bat giza jarduera herrikoiak eta anitzak bultzatzea da; hau da, herriko elkarteek bideratzen dituzten lanak bultzatzea, Lizartzan sortu eta herrian erroturik dauden jarduerak indartzea.

Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarguneak, 2017-2018 ikasturteari begira, Lizartzan bertso eskolak, kultur ekitaldiak eta transmisio-lanak jarri nahi ditu martxan, hiru ildo garatuko dituelarik:

- 1.- Tolosaldeko eta ondorioz Lizartzako bertsozaleen bultzatzeko pausoak ematea.
- 2.- Haur eta gazteentzako bertso eskolak eskeintzea.
- 3.- Haur, gazte eta helduen bertsozaleen dagokionez guztien arteko zubi-lanketari ekitea.

Horrenbestez, aipatutakoa kontutan hartuta Udal Batzar honek, Batzorde Informatzailearen proposamena jarraiki, eta gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA. Lizartzako Udalak eta Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarguneak, bertso eskolak, kultur ekitaldiak eta transmisio lanak proiektuaren aurre egiteko lankidetzarako administrazio-hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan.

HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALEEN ELKARGUNEA ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Lehenik

Lizartzako Udalaren helburuetako bat gizar jarduer aherrikoiak eta anitzak bultzatzea da; hau da, herriko elkarteek bideratzen dituzten lanak bultzatzea, Lizartzan sortu eta herrian erroturik dauden jarduerak indartzea.

Horretaz gain, esparru zehatz honetan, bost helburu nagusi ditu:



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- .- Lizartzako herrian bertsolaritza sustatzea.
- .- Ahozkotasuna lantzen, hizkuntza kalitatea hurrengan zaintzea.
- .- Komunikazio eta jende aurrean hitz egiteko trebetasunak lantzeko gaitasuna garatzea.
- .- Hizkuntza eta erabilera erreferentziak sortzea.
- .- Aisialdi eta kultura eremuan proposamen berriak eskaintzea.

Bigarrenik

Hitzarmen hau ikasturtero errebisatuko da eta egindako aurrera pausuak eta hobekuntza proposamenak baloratuko dira.

Kalusulak

Lehena. Helburuak

Harituz eta Lizartzako Udalak 2017-2018 ikasturteari begira adostutako hitzarmenaren puntu nagusiak bertso eskolak, kultur ekitaldiak eta transmisio-lanak izango dira. Zehazki hiru ildo garatuko dira:

- 1.- Tolosaldeko eta ondorioz, Lizartzako bertsozaletasuna bultzatzeko pausoak ematea.
- 2.- Haur eta gazteentzako bertso eskolak eskeintzea.
- 3.- Haur, gazte eta helbuen bertsolaritzari dagokionez guztien arteko zubi-lanketari ekitea. Horretarako hartuko diren ildo berriak ondokoak izango dira:
 - 3.1.- 8-11 urte bitarteko haurrentzako Bertso Eskola antolatzea.
 - 3.2.- Gazte eta helduentzako ikastaroa eskaintzea.
 - 3.3.- Gu ere bertsoan egitasmoa lantzen ari den Lizartzako Herri Eskolarekin eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekin koordinazioan aritzea, matrikulazio kanpaina egin eta eskolan motibazio saio bat egiteko.
- 4.- Irailean, herriko festetan, bi bertsolariko saio bat egitea.

Bigarrena. Prozedura



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Aurreko helburuei ekiteko, 2 hilabeteko epean (azaroa-abendua), udal erregistroan aurkeztu beharreko dokumentuak ondokoak izango dira:

- 1.- Urteko programaren memoria zehaztua. Programaren gastuak (kontzeptua eta zenbatekoa) eta diru sarrerak (jatorria eta zenbatekoa) biltzen dituen aurrekontua.
- 2.- Beste entitateei diru laguntzetarako eskabideei buruzko aitorpena (eskatu den kasutan).
- 3.- Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarguneak interesagritzat jotzen duen beste edozein dokumentu aurkeztu ahal izango du, aurrekoen osagarri.

Hirugarrena.- Zuriketa

Udalak emango dion dirulaguntza zuritzeko, ikasturtea bukatutakoan Lizartzako Udalaren esku utzi beharreko dokumentazioa honakoa da:

BIGARRENA. Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA. Eneko Elola Jauregi, Alkate ordeari ahalmenak ematea, hitzarmena sinatu ahal izateko.

6.- MOZIOAK

Ez dago moziorik.

7.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zortzittan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATE-ORDEAK
Izpta: Eneko Elola Jauregi

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia